

2018ko. DEIALDIA: OSASUNARI BURUZKO IKERKETA PROIEKTUAK (ISCIII)

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Carlos III.a Osasun Institutuaren (ISCIII) bidez, deialdia egin du 2018. urteko laguntzak emateko, osasunari buruzko ikerketa proiektuak (PI) egiteko. Deialdia 2013/2016 aldiko Ekintza Estrategikoaren barruan dago.

http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/2018/AES_2018.pdf

Interneteko helbidea: <http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/acceso-solicitud-ayudas.shtml>

Deialdiaren helburua:

Finantzatzea osasunari buruzko eta kalitate kontrastatuko ikerketa proiektuak, honako helburu hauek dituztenak:

- Zientzia eta teknika jakintzaren transferentzia eta aplikazioa, gaixotasunen prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua hobetzeko, eta osasun publikoa eta osasun zerbitzuak sustatzeko ekintzetarako.
- Sinergiak sustatzea, talentua eta enplegarritasuna bultzatzea eta gobernu egiturak sendotzea; zehazki, OSNko laguntza zentroetako zientzia eta teknika ahalmenek ematen dituztenak.
- Ikertzaile berrien lehen ikerketa proiektua, kalitate egiaztatua duena, diruz laguntzea. Ondorio hauetarako, ikertzaileak berriak direla kontsideratuko dira 1973. urtean edo beranduago jaio izan badira.

Proiektu-motak eta horien iraupena:

Osasunari buruzko ikerketa proiektuek honako kategoria hauen artean hautatu ahal izango dute:

- Banakako proiektuak:** ikertzaile 1ek edo 2k gidatutakoak.
- Proiektu koordinatuak:** 2 azpi-proiektu edo gehiagok osatutakoa. Azpi-proiektu bakoitzak bere taldea du, eta ikertzaile nagusi bakar bat.
- Proiektu multizentrikoak:** zentro onuradun bakar bat edo batzuk.

Proiektuak gauzatzeko ohiko epea 3 urtekoa izango da, esleipenaren ebazpenean zehazten den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Subentziona daitezkeen kontzeptuak:

Gomendagarria da deialdiaren 80. eta 89.5. artikulua kontsultatzea, beran jasotzen baitira proiektuetan inputa daitezkeen gastuak. Hasierako eskaeraren memorian jasotako kontzeptuak bakarrik egotz daitezke. Edozein aldaketa ISCIIIren bidezko alde aurretiko eta berariazko eskaerari eta baimenari lotuta egongo da.

Honako hauek geratzen dira espresuki kanpoan:

- Informatika eta kopiagintzako kontsumigarriak, bulegoko materiala, zientzien elkarteetarako kuotak eta argitalpenen harpidetzak, konponketak/mantentze lanak, laborategiko jantziak, altzariak, banku komisioak, prestakuntza jarduerak eta ikerketarako egonaldiak.
- Jatorduen eta protokolozko arretarako gastuak.
- Bizilekuan edo lantokian egindako jarduerari emandako laguntzak sortutako gastuak.
- Memorian berariaz ez datozen zerbitzu gastuak, behar den zerbitzua, unitateen kuantifikazioa eta horien balorazioa gastuak sortuko duen zenbateko osoarekin, tarifen arabera.

Eskaerak aurkezteko epeak:

2018eko otsailaren 14tik martxoaren 8ra bitartean (15:00), biak barne.

Eskaera nola egin:

Parte hartu nahi izanez gero, eskabidea betetzen hasi banio lehen, gomendatzen da deitzea Ikerketaren Arloko Errektoreordetzara (94 6018008) informazioa garrantzitsu bat jasotzeko.

Otsailaren 28aren aurretik, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzara igorri behar da (e-maila: igz.deialdiak@ehu.es) langileen **Excela**, **Ikerketaren webgunean** eskegitakoa, ekipoa berrikusteko, deialdian ezarritako betekizunen/bateraezintasunen arabera. Proposatutako langileek onartu ondoren, eskaerak elektronikoki beteko dira, ISCIIIren webgunearen bidez: <https://says.isciii.es/comun/inicio0.aspx?ta=1&anio=2018>

Aplikaziora bi bide hauek erabilia sar daiteke:

- a) **Ziurtagiri elektronikorik gabe:** erabiltzailea eta gakoa sartuta.
- b) **Ziurtagiri elektronikoaren bidez:** [NAN elektronikoa](#), [Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazional](#) edo [IZENPE](#) ziurtagiri bidez, besteak beste.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik gomendatzen dugu arian-arian aplikaziora sartzeko bigarren sistema erabiltzea, hau da, ziurtagiri elektronikoa erabiltzea, laster, nahitaez, modu horretara egin beharko da eta.

Legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa lortzearen, **eskaria aurkeztu ahal izateko nahitaez eta ezinbestean behar den bakarra**, igz.deialdiak@ehu.es helbide elektronikora igorri beharko da mezu bat, **martxoaren 5a baino lehen**, non jasoko den eskaria sinadurarako sortua dela eta mezuari atxikiz:

- Sortutako eskari inprimakia.
- Proiektuaren memoria.
- Ikertzaile nagusiaren (eta, hala balegokio, IN kidearen) CVA-k, [CVN editoreak](#) automatikoki edo CVA zerbitzua eskainiko duen FECYT-en CVN arauan ziurtatutako edozein erakundek sortuta.
- Koordinazio txostena (proiektu koodinatuetarako edo multizentrikoetarako bakarrik).

GARRANTZITSUA: ISCIIIk laguntzak tramitatzeari dagokionean, **eskaria**, **memoria**

eta ikertzaile nagusiaren CV ezin izango dira zuzendu, behin aplikazioan sartu ondoren. **Hiru dokumentu hauetako bat aurkeztu ez** edo **formulario arautuez besteko ereduetan aurkeztu bada**, eskaria **kanpoan** geratuko da onarpen tramitean.

Aplikazio telematikoaren bidez tramitatutako eskarien formularioek, erakunde **eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadura besterik ez dute behar**ko. Deialdiak, hala ere, eskatzen dio erakunde onuradunari proiektuetan parte hartzen duten gainontzeko pertsonen jatorrizko sinaduren egiazkotasuna eta gordailua egin dezan. Horregatik, prozesua amaitu eta gero, ahal denik eta lasterren bidali behar ko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdien atalari **eskariaren ale bat, non agertuko diren ikertzaile nagusiaren eta ekipoa n parte hartzen duten gainontzeko kide guztien sinadurak**.

Ez da sinatuko aipatutako egun horren ondoren jasotzen den inolako eskabiderik: automatikoki **baztertuko da hautatze prozesutik**.

Informazio gehiago:

Hauek dira erakundearen (hau da, UPV/EHUren) datuak eskaria betetzeko:

IFK: Q4818001-B

Helbide soziala: Sarriena auzoa, zk.g., 48940 (Leioa)

Lege ordezkaria: Jose Luis Martín González

Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea

Komenigarria da laguntzaren gida eta ohiko galderen atala irakurtzea ISCIII-ren webgunean:

- http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/fd-guias-ayuda/2018/PI_18_GUIA_DE_AYUDA.pdf
- http://www.isciii.es/ISCIII/es/contenidos/fd-investigacion/fd-financiacion/fd-convocatorias-ayudas-accion-estrategica-salud/fd-faq/2018/PI_18_PREGUNTAS_FRECUENTES.pdf

Informazioa UPV/EHU n:

Telefono zenbakia: 94 601 80 08

E-maila: igz.deialdiak@ehu.es